

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

5553

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 20koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, Larrialdiak kudeatzeko Legea aldatzeko lege-aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.

Larrialdiak Kudeatzeko legea aldatzeko lege-aurreproiektua prestatu du Segurtasun Sailak; eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu beharko da proiektu hori.

Xedapen orokorrek herritarren eskubide eta interes bidezkoiei eragiten badiete, entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute, betiere aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikularekin bat etorritik; eta euren izaera dela-eta beharrezkoa bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Eta horren ondorioz, aurreproiektua jendaurrean jarriko da, hogeiei egun balioduneko epea egongo da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eta azaldutako guztiagatik eta Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuaren 11.2.a) artikularekin bat etorritik, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Larrialdiak kudeatzeko Legea aldatzeko lege-aurreproiektua jendaurrean jartzea, hogeiei egun balioduneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko asmoz, aurreproiektuaren edukia Segurtasun Sailaren Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzan egongo da eskura (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz), bai eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan ere (euskadi.net).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 20a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.